



**BIZKAIKO FORU
ALDUNDIAK BULTZATU
BEHARREKO
PARTAIDETZARI BURUZKO
EZTABAIDA-FOROA**

EMAITZAK ITZULTZEKO TXOSTENA

1

SARRERA

SARRERA

Urtarrilaren 28an Bizkaiko Foru Aldundiaren bigarren Eztabaida Foroa egin zen **Bilboko Euskalduna Jauregian**.

Eztabaida Foroa...



- **Herritarrek Administrazio Publikoarekin lankidetzan jarduteko ariketa bat da, politika eta zerbitzu publikoak hobetzeko.**
- **Lan-dinamika bat da, non pertsona talde batek hausnartu eta gomendioak egiten dituen aldez aurretik finkatutako gai bati buruz.**
- **Parte-hartzaileek taldeka eztabaidatu baino lehen, landu beharreko gaian adituak diren pertsonen aurkezpen bat egiten dute ekimena testuinguruan jartzeko.**
- **Eztabaidaren ostean, Foroko parte-hartzaileek gomendio adostuak ematen dituzte proposatutako gaiari buruz.**
- **Administrazioak ez du gomendioak bere gain hartzeko konpromisorik hartzen, baina bai gomendio horiek sakonki aztertzea eta gauzatu ezin direnak behar beste arrazoitzea.**

Eztabaida Foro hau **Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako III. Plana prestatzeko** prozesuaren barruan egin da. Plana 2023. urtean zehar zehaztuko da.

Foroan **33 pertsonak** hartu zuten parte:



13 emakumek



20 gizonek

Honakoa izan zen Foroaren programa:

Ordua	Jarduera
09.45-10.00	Parte-hartzaileei harrera egitea.
10.00-10.15	Erakundeen ongi-etorria eta lan-programaren aurkezpena.
10.15-11.30	Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetza-eredua azaltzea. Eztabaidagai jarraitako gaiak aurkeztea.
11.30-12.00	Kaferako etenaldia.
12.00-13.45	BFA'n partaidetzari balio handiagoa emateko txertatu edo kontuan hartu beharreko elementuak identifikatzea (talde-lana).
13.45-14.00	Alternatibak aztertu eta lehenestea.
14.00-15.00	Otamena.
15.00-16.15	Gomendioak egitea.
16.15-16.45	Bateratzea eta bozkatzea.
16.45-17.00	Foroaren ebaluazioa, esker ona eta amaiera .

Foroaren hasieran, Herritarren Partaidetzak egun Bizkaiko Foru Aldundian duen egoera zein den azaldu zen.

Azalpenaren ondoren, **taldeka egin zen lan honako galdera hauen inguruan:**

1. GAIA . NOLA GAUZATU PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA?

Zer PARTAIDETZA-KANAL izango lirateke eraginkorrenak partaidetza handiagoa lortzeko? Eta balio handiagoa ematen duen partaidetza lortzeko? Eta zeintzuk kolektibo jakin batzuen partaidetza bermatzeko? Nola uztartu beharko lirateke aurrez aurreko partaidetza eta partaidetza telematikoa?

2. GAIA. NOLA EZAGUTU/ESKURATU PARTE HARTZEKO AUKERAK?

Zer INFORMAZIO/ HEDAPEN-KANAL izango lirateke eraginkorrenak herritarrengana iristeko eta partaidetza handiagoa lortzeko, betiere kontuan hartuta kanal horiek arrazoizko kostua eduki behar dutela?

3. GAIA. PROZESUAN ZEHAR EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

Zer INFORMAZIO-MOTA behar dut PARTE HARTZEKO AURKEZTUTAKO GAIARI EDO PROPOSAMENARI BURUZ, ezagutza nahikoarekin parte hartu ahal izateko?

Zer INFORMAZIO ESKAINI BEHARKO LITZATEKE PROZESUARI BURUZ, bertan parte hartzeko interes nahikoa sortzeko?

4. GAIA. GARDENTASUNERAKO ETA EMAITZAK ITZULTZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK

Zer ELEMENTU dira funtsezko partaidetzako organoen, espazioen eta prozesuen gardentasuna lortzeko, HALAKO MOLDEZ NON HERRITARREK PARTAIDETZA-ARLOAN ZER EGITEN ARI DEN EZAGUTZEAZ GAIN, ZIUR EGON DAITEZEN partaidetza egoki kudeatzen ari dela eta emaitza egokiak lortzen ari direla?

Galdera horiek erantzuteko, parte-hartzaileek, guztira, **23 gomendio** adostu zituzten, **eta, ondoren**, Bizkaiko Foru Aldundiak **aztertu ditu**.

EZTABAIDA-FOROAK EMANDAKO GOMENDIOAK

1. GAIA : NOLA GAUZATU PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

- 1.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu lurraldeko biztanleriaren profilak kontuan hartzea gaitzen dituen partaidetza-kanaleetan, hala nola adina, ikasketa-maila, bizilekua...
- 2.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu parte hartzeko kanal hauek izatea: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, posta bidezkoa eta telematikoa (web-orriak, bideo-hitzaldiak, txatak, sareak, e-mailak eta abar).
- 3.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu hala eskatzen duten pertsonei, gaur egun bide elektronikoz eskaintzen den informazioaz gain, eskuliburu, gida, liburuxka fisikoak... ematea, herritarrek nola parte hartu jakin dezaten.
- 4.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazioa euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetara egokitzea.
- 5.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarrei partaidetza- eta ezagutza-kanalak bermatzea parte hartzeko prozesuaren etapa guztietan.
- 6.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Errenta Aitorpenerako gaitutako kanalak aprobetxatzea, BFaren herritarren partaidetza-eredua, besteak beste, ezagutarazteko.

EZTABAIDA-FOROAK EMANDAKO GOMENDIOAK

2. GAIA: NOLA EZAGUTU/ESKURATU PARTE HARTZEKO AUKERAK

7.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundia eta gainerako erakundeak kalera, “ herriz herri” ateratzea, partaidetza-aukerak azaltzeko (adibidez, stand-en, topaketen, foru-langileen eta abarren bidez). Zehazki, Foru Aldundiko langileek partaidetzaren sustapenean zeregin garrantzitsua izan dezatela.

8.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren parte-hartzea sustatzea, parte hartzeko karpen, azoken eta adin guztientzako jarduera erakargarriak dituzten tokiko jaien bidez.

9.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu kanal anitzeko bitartekoak erabiltzea herritarren parte-hartzea sustatzeko, eta komunikazio-kanpaina espezifikoak ezagutaraztea telebista, postontzi, prentsa idatzi, sare sozial, webgune, tokiko aldizkari eta abarren bidez.

10.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren partaidetza eskolatik sustatzea, hitzaldien eta ate irekitako jardunaldien bitartez. Parte hartzen irakastea.

11.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetza-proiektu honek jarraipena izan dezala eta haren garapenean sakondu dadila, eta, halaber, bertan Aldundiko sail guztiak inplika daitezela.

EZTABAIDA FOROAK EMANDAKO GOMENDIOAK

3. GAIA: PROZESUAN ZEHAR EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

12.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu beharrezko zabalpen-kanpainak egitea, herritarrei aldez aurretik jakinarazita, eta beste kanpaina arrakastatsu batzuetan (adibidez: Errenta) erabilitako bitarteen bidez ikusaraziz.

13.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu emandako informazioa irakurketa errazaren formatuan azaltzea, argia, laburra, eta zehatza baita, eta horrela herritar guztiek ulertzeko modukoa izan dadin.

14.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazio gehiago ematea eztabaida foroan deialdietan (bibliografia, foroaren egitura galderekin), gonbidatuek, aldez aurretik eta borondatez, landu beharreko gaiari buruzko informazioa jaso dezaten.

15.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu aukeratutako gaiaren arrazoiak (errealitatea eta problematika) aldez aurretik eta aurrerapen nahikoarekin (15 egun lehenago gutxi gorabehera) ematea, konponbidea erraztuko duten neurri egokiak ezartzeko egin beharreko urratsak eta egungo egoera zehaztuz.

16.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, interes handia eta parte-hartze handiagoa lortzeko, parte-hartzaileei informazioaren aldizkako jarraipena bermatzea, gaiak zer bilakaera izan duen jakiteko, proposamenen hasierako ekarpenetik aukeratutako ondorioetaraino.

17.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetzarako deialdian zehatz-mehatz zehaztea parte-hartze horrek norberaren onerako eta gainerako herritarrentzat izan ditzakeen onurak.

18.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu nazioarteko beste esperientzia global batzuk biltzea honakoei buruz: parte hartu ahal izateko, gaiei lotuta eman behar den informazio mota, eta, parte hartzeko interesa pizteko, prozesuaren gainean eman beharreko informazioa.

EZTABAIDA -FOROAK EMANDAKO GOMENDIOAK

4. GAIA: GARDENTASUNERAKO ETA EMAITZAK ITZULTZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK

19.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak prozesuaren jarraipena egiteko konpromisoa har dezala. Horretarako, Aldundiak txosten bat argitaratu beharko du, dagokion formatuan, egindako ekarpenak behar bezala kudeatzen ari direla eta emaitza egokiak lortzen ari direla erakusteko. Emaitzak ezagutzeko eskubidea bermatuko da Aldundiaren webgunean, sare sozialetan, komunikabideetan, eta, aurrez aurre, Aldundiaren bulegoetan, udaletan, eta abarretan.

20.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, prozesuaren emaitzak zabaltzean, hizkera erraza (ez-teknikoa) erabiltzea egiten diren euskarri guztietan, eta grafikoekin eta irudiekin batera aurkeztea, herritarrek erraz uler ditzaten.

21.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak erantzun diezaiola herritar bakoitzak egindako ekarpenari/proposamenari, hau da, proposamen bakoitzari erantzun diezaiola.

22.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak, ekarpenei buruzko txostena argitaratzeaz gain, publizitate aktiboaren printzipioari jarraitzea, hau da, bizkaitar gehiagorengana iristeko, Aldundiak zabalpen-ekintzak egitea, prozesuaren emaitzak parte-hartzaileei eta parte-hartzaile izan ez direnei jakinarazteko.

23.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, herritarrek emaitzak errazago aurki ditzaten, Aldundiaren webgunearen hasieran partaidetza-atalerako zuzeneko sarbidea ipintzea, herritarrek errazago ikus eta aurki ditzaten (webgunerako zuzeneko sarbidea).

2

EZTABAIDA-FOROAN SORTUTAKO GOMENDIOEN ANALISIA

EZTABAIDA -FOROAN SORTUTAKO GOMENDIOEN ANALISIA

Ondorengo orrialdeetan, Foroko gomendio bakoitzaren analisi xehatua egiten da.

Gomendio bakoitzerako honako informazio hau ematen da.

- Egungo egoeraren analisi
- Gomendioa aplikatzearen bidegarritasuna.
- Gomendioaren inguruan Aldundiak hartutako konpromiso zehatzak.

Gomendioa aplikatzearen bidegarritasuna eskala honen arabera definitu da:



HANDIA



ERTAINA



TXIKIA

1. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu lurraldeko biztanleriaren profilak kontuan hartzea gaitzen dituen partaidetza-kanaleetan, hala nola adina, ikasketa-maila, bizilekua...

EGUNGO EGOERA

Gaur egun BFaren arauen, planen, zerbitzuen eta programen gainean parte hartzeko eskubidea gauzatzea ahalbidetzen duten kanalek kontuan dituzte kolektibo guztien errealitatea eta berezitasunak.

BFAk honako hauek uztartzen ditu:

- Partaidetza **kanal estandar eta formalak**, aurretiko kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren betebeharrak betetzeko.
- **Kanal malguagoak eta prozesu bakoitzaren** eta xede duen **publikoaren arabera egokituak**. Kanal hauek publiko horrengana gerturatu nahi dute, kasu bakoitzera egokituz.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- **Kolektibo bakoitzak** partaidetza-prozesuetan parte hartzea erraztuko duten **kanalak indartzea**.
- 2.- **Berariazko kanalak** erabiltzea **IKTak** (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) **gutxien** ezagutzen dituzten kolektiboen edo/eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboen parte-hartzea ahalbidetzeko. Batez ere, gaiak kolektibo jakin batean eragina izan dezakeenean.

2. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu parte hartzeko kanal hauek izatea: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, posta bidezkoa eta telematikoa (web-orriak, bideo-hitzaldiak, txatak, sareak, e-mailak eta abar)

EGUNGO EGOERA

BFAk hainbat kanal ditu, parte hartzeko prozesu bakoitzaren errealitatearen arabera:



- **Kanal telematikoa** ohikoena da. Honako prozesu hauetan erabiltzen da:
 - ☐ Aurretiazko kontsultaren eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak.
 - ☐ Inkesta-jarduerak edo/eta iritziak edo proposamenak biltzeko jarduerak barne hartzen dituzten partaidetza-prozesuak.
 - ☐ Bideo-hitzaldiak ere erabiltzen dira, Bizkaiko hainbat eskualdetan bizi diren pertsona eta eragileekin bilera birtualak egiteko (focus group-ak edo antzeko talde-dinamikak)



- **Aurrez aurreko kanala** ohikoena da tokian bertan egiten diren eztabaida-foroetan edo focus group-etan. Gainera, BFaren aurrez aurreko erregistro ofizialetan egin daitezke beti aurretiazko kontsultaren eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak .



- **Telefono bidezko kanala**, batez ere, partaidetza-prozesuaren gaiari buruz herritarrek zer iritzi duten jakiteko egiten diren inkesta-prozesuetan erabiltzen da.

Horrez gain, **gizarte-sareak** erabiltzen dira partaidetzaren aukerak eta emaitzak partaidetzaren xede diren pertsonengana eta eragileengana hurbiltzeko. Entzuketara aktiboko eta komunikazioko kanalak dira partaidetza-kanalak baino.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDE GARRITASUNA



HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- **Kanal anitzeko partaidetzaren** alde egitea, parte hartzeko eskubidea gauzatzeko aukera emango baitu eta , gainera, modu eragingorrean.

2.- **Aurrez aurreko kanalak** bermatzea **IKTak** (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) **gutxien ezagutzen dituzten kolektiboentzat** edo/eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboentzat, batez ere, gaiak pertsona horiengan eragina izan dezakeenean.

3. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu hala eskatzen duten pertsoneri, gaur egun bide elektronikoz eskaintzen den informazioaz gain, eskuliburu, gida edo liburuxka fisikoak... ematea, herritarrek nola parte hartu jakin dezaten.

EGUNGO EGOERA

BFaren partaidetza-zerbitzuak (Partaidetza) ez dauka gaur egun eskuliburu, gida edo liburuxka fisikorik, herritarrek nola parte hartu jakin dezaten.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- **Paperezko informazio-materiala** sortzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetzaren ereduari eta parte hartzeko kanal eta espazioei buruz.
- 2.- Informazio-materiala **eskuragarri** egongo da **Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarren Arretarako Bulegoetan**, eta partaidetzari eta Gobernu Irekiari lotutako ekitaldi, jarduera edo/eta dinamiketan.
- 3.- Horrez gain, informazio-material hori **Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-webgunean argitaratuko da.**



4. gomendioa- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazioa euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetara egokitzea.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiaren egungo partaidetza-prozesuek euskaraz nahiz gaztelaniaz parte hatzeko aukera bermatzen dute, baina ez beste hizkuntza batzuetan.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

ERTAINA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

Partaidetzak balio handia ematen die Bizkaiko Foru Aldundiaren arauen eta planen formulazioari eta programen eta zerbitzuen diseinu, birdiseinu edo/eta ebaluazioari. **Hala ere, prozesu horiek ekonomikoki jasagarriak izan behar dute.**

Hori dela eta, ezin da gomendio hori onartu partaidetza-prozesu guztietarako. Beste jatorri batzuetako pertsonen iritzia eta partaidetza bereziki garrantzitsua den prozesuetan onartu ahal izango da, pertsona horiek ez euskara ez gaztelania menperatzen ez dutenean. Kasu horietan, kolektibo horiek ordezkatzen dituzten erakundeekin lankidetzan arituko da behar horri erantzuna emateko.

5. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarrei partaidetza- eta ezagutza-kanalak bermatzea parte hartzeko prozesuaren etapa guztietan.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako partaidetza-prozesuek **3 fase** handi hartzen dituzte barne:

- Diseinua, plangintza eta prestaketa.
- Dinamizazioa.
- Itxiera eta emaitzak itzultzea.

Herritarrek **parte hartzeko eta herritarrei jakinarazteko** kanalak hasieran zehazten dira eta prozesu osoan mantentzen dira.

Partaidetza-webguneko informazioa kanalen **osagarria da**, prozesuaren emaitzen gardentasunerako eta hedapenerako elementu gisa.

Informazio guztia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza/partaidetza-prozesuak> bertan, irekita dauden prozesuei eta amaitu direnei buruzko informazioa argitaratzen da.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- Partaidetza-prozesuen itxieran sakontzen jarraitzea, honako informazio hau ematen duten **txosten edo memorien bidez**:

- Abian jarritako **partaidetza- eta hedapen-kanalak**.
- **Lortutako partaidetza-maila** (globala eta taldeka zein kolektiboka banatuta).
- Partaidetzaren bidez lortutako **eragina**.

6. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Errenta Aitorpenerako gaitutako kanalak aprobetxatzea BFaren herritarren partaidetza-eredua, besteak beste, ezagutarazteko.

EGUNGO EGOERA

Errenta kanpaina da Bizkaiko Foru Aldundiaren urteko komunikazio-proiektu handiena, **Bizkaiko pertsona gehienei eragiten dien prozesua** baita.

Kanpaina gauzatzeko **komunikazio-kanal ugari erabiltzen dira.**

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

TXIKIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

Bat ere ez.

Gure ustez, errentaren berri emateko kanpainak bere helburu nagusian zentratzen jarraitu behar du, hau da, Bizkaiko herritarrei epeen, bideen eta laguntza-tresnen berri ematea, herritarrek ildo horretan dituzten betebeharrak bete ditzaten. Kaltegarria litzateke kanpaina horretan mezu nagusiak hutsaldu ditzaketen beste komunikazio-helburu batzuk sartzea.

7. gomendia- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundia eta gainerako erakundeak kalera, “herriz herri” , ateratzea, partaidetza-aukerak azaltzeko (adibidez, stand-en, topaketen, foru-langileen eta abarren bidez). Zehazki, Foru Aldundiko langileek partaidetzaren sustapenean zeregin garrantzitsua izan dezatela.

EGUNGO EGOERA

Gaur egun badaude Bizkaia fisikoki zeharkatzen duten zenbait partaidetza-prozesu, baina ez da beti edo maiz egiten den praktika bat.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDE GARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- BFAk bere gain hartzen du **partaidetza-aukerak lurraldera gehiago hurbiltzeko** konpromisoa, batez ere, xede-publiko zabalagoa duten prozesuetan.

Herritarrak artatzeko **Gertu bulegoen bitartez** egingo da lan, Bizkaiko lurraldeetan banatuta baitaude eta funtsezkoak izango baitira hurbilketa horretan.

2.- Gainera, Partaidetza Plan berriak **Aldundian aritzen diren langileei** zuzendutako prestakuntza-jarduerak indartuko ditu , **partaidetza-prozesuetan protagonismo handiagoa** izan dezaten.

8. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren parte-hartzea sustatzea, parte hartzeko karpén, azoken eta adin guztientzako jarduera erakargarriak dituzten tokiko jaien bidez.

EGUNGO EGOERA

Gaur egun **partaidetza** ez da sustatzen gomendioan adierazitako jardueren bitartez.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- **Partaidetza-aukerak lurraldera gehiago hurbiltzea**, batez ere xede-publiko zabalagoa duten prozesuetan, udalek egiten dituzten jolas-jarduerak aprobetxatuz. Horrela, gehiago sustatuko da partaidetza.
- 2.- **Partaidetza erakargarriagoa eta lagunkoiagoa** egitea, **gamifikazioaren** (jolas-elementuen erabilera) potentzialitatea partaidetza-prozesuetan aplikatuz.

9. gomendioa- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu kanal anitzeko bitartekoak erabiltzea herritarren parte-hartzea sustatzeko, eta komunikazio-kanpaina espezifikoak ezagutaraztea telebista, postontzi, prentsa idatzi, sare sozial, webgune, okiko aldizkari eta abarren bidez.

EGUNGO EGOERA

Honako **kanal** hauek erabiltzen dira **partaidetza-prozesuak ezagutarazteko**:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren **webgunea** (oro har, bai **Partaidetza-webgunea** bai **prozesuaz arduratzen den sailarena**).
- **Gizarte-sareak**
- [Bizkaitarren Sarea](#), Bizkaian partaidetza-prozesuetan **modu aktiboan parte hartzeko interesa duten pertsonen eta eragileen sarea**.
- Araudia prestatzeko partaidetza-prozesuetarako berariazko harpidetza-kanala.
- **Posta elektronikoa** zuzenen kanpainak, eta prozesu bakoitzaren xede-taldeak eta xede-kolektiboak ordezkatzeko erabiltzen dituzten erakundeen bitartez.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDE GARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- **Herritarren partaidetza sustatzeko kanalak** sendotzea, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioak aplikatuz.
- 2.- Gainera, lankidetzarako formulak landuko ditugu **udal-komunikazioko kanalak aprobetxatzeko**, parte hartzeko foru-prozesuak herritarrei hurbiltze aldera.

10. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren partaidetza eskolatik sustatzea, hitzaldien eta ate irekitako jardunaldien bitartez. Parte hartzen irakastea.

EGUNGO EGOERAREN ANALISIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan hainbat **ekimen eta programa daude gazteen parte-hartzea sustatzeko** (ikusi <https://gazteak.bizkaia.eus/eu>).

Gainera, OGP Euskadi (*) ekimenaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiak “Open Eskola: Gobernantza publikorako herritarrentzako eskola irekia” proiektuan hartzen du parte (ikusi <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-eskola-herritarrentzat-irekitako-eskola/>)

Aitzitik, gaur egun **ez dago berariazko ildorik haurren partaidetza sustatzeko**

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHAZAK

- 1.- Bizkaiko **gazteen partaidetza** sustatzen jarraitzea.
- 2.- Hurrengo Partaidetza Planean **haurren eta nerabeen partaidetza** sustatzeko **berariazko ildo espezifiko**a sartzea, udal- eta lurralde-mailako proiektuak berariaz babestuz.

(*) *Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership – OGP) nazioarteko erakunde bat da, gobernu gardenagoak, parte-hartzaileagoak, inklusiboagoak eta arduratsuagoak eratzeko asmoa duena.*

OGPk Euskadi hautatu zuen 2018.urtean Tokiko Gobernuetarako bere programan parte hartzeko. Handik aurrera, 2 ekintza-plan diseinatu eta ezarri dira Euskadin (2018-2020 eta 2021-2024), biak Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza aktiboarekin. .

11. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetza-proiektu honek jarraipena izan dezala eta haren garapenean sakondu dadila, eta, halaber, bertan Aldundiko sail guztiak inplika daitezela.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen bigarren Etabaida Foroa da hau. Oraingoan, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu beharreko parte-hartzeari buruz lan egin da.

Oraindik ezin dugu esan tresna hori erabiltzea jardunbide orokortua dela, baina bai jada abiarazitako lan-ildo bat dela.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- Etabaida Foroak bultzatzen jarraitzea, formatu hori egokiena dela ulertzen den **beste gai batzuetan**.
- 2.- Etabaida -printzipioak partaidetzarako **beste formatu batzuetan aplikatzea**, espezifikoki 2 dimentsio indartuz:
 - Prozesu bakoitzaren hasieran emandako **testuinguru-informazioa**, informazioan gehiago oinarritutako partaidetza ahalbidetzeko.
 - Partaidetza-prozesuetan **hartutako konpromisoak abian jartzeari buruzko kontuak ematea**.

12. gomendia- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu beharrezko zabalpen-kanpainak egitea, herritarrei aldez aurretik jakinarazita, eta beste kanpaina arrakastatsu batzuetan (adibidez: Errenta) erabilitako bitarteen bidez ikusaraziz.

EGUNGO EGOERA

Honako kanal hauek erabiltzen dira **partaidetza-prozesuak** ezagutarazteko:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren **webgunea** (oro har, bai **Partaidetza-webgunea** bai **prozesuaz** arduratzen den sailarena).
- **Gizarte-sareak**
- [Bizkaitarren Sarea](#), Bizkaian partaidetza-prozesuetan **modu aktiboan parte hartzeko interesa duten pertsonen eta eragileen sarea**.
- Araudia prestatzeko partaidetza-prozesuetarako berariazko harpidetza-kanala.
- **Posta elektroniko** zuzenen kanpainak, eta prozesu bakoitzaren xede-taldeak eta xede-kolektiboak ordezkatzeko dituzten erakundeen bitartez.



GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- **Herritarren partaidetza** sustatzeko kanalak sendotzea, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioak aplikatuz.

13. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu emandako informazioa irakurketa errazaren formatuan azaltzea, argia, laburra eta zehatza baita, eta horrela herritar guztiek ulertzeko modukoa izan dadin.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak gero eta maizago erabiltzen du Irakurketa Errazaren (*) formatuko dokumentazioa. Aldundiaren araudiaren eta planen irakurketa errazeko bertsioak daude, batez ere gai garrantzitsuenetan.

Gainera, gero eta dokumentu gehiago egiten dira hizkera argiaren printzipioei jarraituz.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- Hizkera Argiaren printzipioen aplikazioa indartzea partaidetza-prozesuetan sortutako dokumentazioan.

(*) Irakurketa Erreza ulertzen errazagoak diren dokumentuak sortzeko modua da.

Pertsona guztientzat da baliagarria. Baina, batez ere, ulermen-zailtasunak dituzten pertsonentzat da baliagarria.

14. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazio gehiago ematea eztabaida-foroen deialdietan (bibliografia, foroaren egitura galderekin), gonbidatuek, aldez aurretik eta borondatez, landu beharreko gaiari buruzko informazioa jaso dezaten.

EGUNGO EGOERA

Gaur arte egindako 2 Eztabaida Foroetan ez da testuinguruari buruzko aldez aurreko informaziorik igorri.

Horrela egin da **zeren eta** Bizkaiko Foru Aldundiak **ulertu baitu ahalegin gehigarri bat izan litekeela parte-hartzaileentzat.**

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- Antolatzen diren hurrengo Eztabaida Foroetan **gomendioak egiteko galderak Foroa egin aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin bidaliko dira.**
- 2.- Testuinguruan jartzeko **bibliografia eta dokumentazioa ere bidaliko dira.**

15. gomendioa- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu aukeratutako gaiaren arazoak (errealitatea eta problematika) aldez aurretik eta aurrerapen nahikoarekin (15 egun lehenago gutxi gorabehera) ematea, egungo egoera eta konponbidea erraztuko duten neurri egokiak ezartzeko egin beharreko urratsak zehaztuz.

EGUNGO EGOERA

Gaur arte egindako 2 Eztabaida Foroetan ez da testuinguruari buruzko aldez aurreko informaziorik igorri.

Horrela egin da **zeren eta** Bizkaiko Foru Aldundiak **ulertu baitu ahalegin gehigarri bat izan litekeela parte-hartzaileentzat.**

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHAZAK

- 1.- Antolatzen diren hurrengo Eztabaida Foroetan **gomendioak egiteko galderak Foroa egin aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin bidaliko dira.**
- 2.- Testuinguruan jartzeko **bibliografia eta dokumentazioa ere bidaliko dira.**

Testuinguruan jartzeko dokumentazioak parte hartzeko aurkeztutako **problematikari edo aukerari buruzko datuak** jasoko ditu, bai eta **BFA, problematika hori konpontzeko edo aukera hori baliatzeko, aztertzen ari den lan-ildoan azalpena ere.**

16. gomendioa- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, interes handia eta parte-hartze handiagoa lortzeko, parte-hartzaileei informazioaren aldizkako jarraipena bermatzea, gaiak zer bilakaera izan duen jakiteko, proposamenen hasierako ekarpenetik aukeratutako ondorioetaraino.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarritako partaidetza-prozesu askok **Partaidetza Memoria** bat dute. Memoria hori zuzenean **igortzen zaie** prozesuan **parte hartutako pertsoneri eta**, gainera, Aldundiaren partaidetza-webgunean argitaratzen da.

Hala ere, prozesu guztiek ez dute Memoria bat sortzen, eta, Memoria horrek ez du kasu guztietan partaidetzaren eragina identifikatzeko behar besteko trazabilitaterik eskaintzen.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHAZAK

1.- Partaidetza-prozesu guztiek Partaidetzaren Memoria bat edukiko dute.

Memoria horrek aukera emango du **partaidetzak** aztergai izan duen arau, plan, programa edo zerbitzuan parte-hartzeak izan duen eragina erraz ezagutzeko.

2.- **Memoriak zuzenean igorriko zaizkie** prozesuan **parte hartu duten pertsoneri**, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-webgunean ere argitaratuko dira.

17. gomendioa- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetzarako deialdian zehatz-mehatz zehaztea parte-hartze horrek norberaren onerako eta gainerako herritarrentzat izan ditzakeen onurak.

ORAINGO EGOERA

Gure ustez, bai partaidetzarako Aldundiaren ereduari eta jardunbideari buruzko komunikazio orokorrean, bai bultzatzen diren prozesuetan, **sartua dago jadanik horren onuren azalpena.**

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- **Partaidetzaren onuren komunikazioa indartzea**, bai partaidetzarako Bizkaiko Foru Aldundiaren ereduari eta jardunbideari buruzko komunikazio orokorrean, bai bultzatzen diren prozesuetan.

18. gomendioa- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu nazioarteko beste esperientzia global batzuk biltzea honakoei buruz: parte hartu ahal izateko, gaiei lotuta eman behar den informazio-mota, eta, parte hartzeko interesa pizteko, prozesuaren gainean eman beharreko informazioa.

EGUNGO EGOERA

BFAren partaidetza-zerbitzuak (Partaidetza) badauka dagoeneko partaidetza-arloko jardunbide egokiei buruzko informazio jarraitua, Euskadi-, estatu- nahiz nazioarte-mailan.

Gainera, OGP Euskadi (*) bezalako sareetan hartzen du parte, bai eta partaidetzari eta Gobernu Irekiari buruzko hainbat ekitalditan ere; horri esker, **partaidetza-arloko azken joerak eta jardunbide egokiak** ezagutzeko aukera du.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- Euskadiko, estatuko eta nazioarteko **partaidetza-arloko jardunbide egokien identifikazioa, analisia eta txertaketa** sendotzea.

(*) Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership - OGP) nazioarteko erakunde bat da, gobernu gardenagoak, parte-hartzaileagoak, inklusiboagoak eta arduratsuagoak eratzeko asmoa duena.

OGPk Euskadi hautatu zuen 2018.urtean Tokiko Gobernuetarako bere programan parte hartzeko. Handik aurrera, 2 ekintza-plan diseinatu eta ezarri dira Euskadin (2018-2020 eta 2021-2024), biak Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza aktiboarekin.

19. gomendioa- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak prozesuaren jarraipena egiteko konpromisoa har dezala. Horretarako, Aldundiak txosten bat argitaratu beharko du, dagokion formatuan, egindako ekarpenak behar bezala kudeatzen ari direla eta emaitza egokiak lortzen ari direla erakusteko. Emaitzak ezagutzeko eskubidea bermatuko da Aldundiaren webgunean, sare sozialetan, komunikabideetan, eta aurrez aurre Aldundiaren bulegoetan, udaletan, eta abarretan.

EGUNGO EGOERA

Aurreko Eztabaida Foroan, Aldundiaren herritarren arretarako zerbitzuari buruzkoan, **txosten publiko bat egin zen**, jasotako gomendien gainean hartu ziren konpromisoei buruz.

Txosten hori zuzenean **igorri zitzaien** prozesuan parte hartu zuten pertsoneri, eta, gainera, **Bizkaiko Foru Aldundiko partaidetza-webgunean argitaratu zen**.

Txostenak **jarraipen-txosten bat egin eta zabaltzeko konpromisoa** jasotzen zuen, herritarrek Aldundiak hartutako konpromisoen betetze-mailaren berri izan zezaten.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- Partaidetza-prozesuetan hartutako **konpromisoen berariazko jarraipena** egitea, bai eta horien betetze-mailari buruz **kontu-erate egokia** ere.

Hedapen-kanal egokienak erabiliko dira, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioekin bat etorruta.

20. gomendia- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, prozesuaren emaitzak zabaltzean, hizkera erraza (ez-teknikoa) erabiltzea egiten diren euskarri guztietan, eta grafikoekin eta irudiekin batera aurkeztea, herritarrek erraz uler ditzaten.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak gero eta maizago erabiltzen du Irakurketa Errazaren (*) formatuko dokumentazioa. Aldundiaren araudiaren eta planen irakurketa errazeko bertsioak daude, batez ere gai garrantzitsuenetan.

Gainera, gero eta dokumentu gehiago egiten dira hizkera argiaren printzipioei jarraituz.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- **Hizkera Argiaren printzipioen aplikazioa indartzea** partaidetza-prozesuetan sortutako dokumentazioan.
- 2.- Txosten luzeagoetan, **horien laburpen exekutiboa sartuko da**.

(*) Irakurketa Erreza ulertzen errazagoak diren dokumentuak sortzeko modua da.

Pertsona guztientzat da baliagarria. Baina, batez ere, ulermen-zailtasunak dituzten pertsonentzat da baliagarria.

21. gomendioa- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak erantzun diezaiola herritar bakoitzak egindako ekarpenari/proposamenari, hau da, proposamen bakoitzari erantzun diezaiola.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarritako partaidetza-prozesu askok **Partaidetza Memoria** bat dute, eta, **bertan zehazten dira jasotako ekarpenak/ proposamenak**, bai eta ekarpen edo proposamen horiek dagokion zerbitzuaren arauan, planean, edo hobekuntzan nola txertatuko diren ere.

Hala ere, hori gaur egun ez da kasu guztietan aplikatzen, ezta beti behar bezala ere.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- Partaidetza Memoriek **jasotako ekarpenen/proposamenen erantzunarekin lotutako edukiak indartuko dituzte**, eta erantzun hori bai banaka bai antzekoak diren beste batzuekin integratuta emago da.

22. gomendioa- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak, ekarpenei buruzko txostena argitaratzeaz gain, publizitate aktiboaren printzipioari jarraitzea, hau da, bizkaitar gehiagorengana iristeko, Aldundiak zabalpen-ekintzak egitea, prozesuaren emaitzak parte-hartzaileei eta parte- hartzaile izan ez direnei jakinarazteko.

EGUNGO EGOERA

Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarritako partaidetza-prozesu askok **Partaidetza Memoria** bat dute.

Memoriak prozesuan parte hartutako pertsoneri igortzen zaizkie, eta, gainera, BFaren partaidetza-webgunean argitaratzen dira.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

- 1.- Partaidetza-prozesuei buruzko memoriak egitea eta zabaltzea.
- 2.- Zabalpena bi modutan egingo da, bai modu irekian herritar guztientzat, bai zuzenean eta berariaz prozesuan parte hartutako pertsonentzat eta/edo eragileentzat.

23. gomendioa- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, herritarrek emaitzak errazago aurki ditzaten, Aldundiaren webgunearen hasieran partaidetza-atalerako zuzeneko sarbidea ipintzea, herritarrek errazago ikus eta aurki ditzaten (webgunerako zuzeneko sarbidea).

EGUNGO EGOERA

Gaur egun ez dago **sarbide zuzenik** Bizkaiko Foru Aldundiaren hasierako web-orritik **Partaidetza-webgunera**.

GOMENDIOA APLIKATZEAREN BIDEGARRITASUNA

HANDIA



ALDUNDIAK GOMENDIO HONI BURUZ HARTZEN DITUEN KONPROMISO ZEHATZAK

1.- BFAren partaidetza-webgunearen posizionamendu ona lortzeko lan egitea, **bilatzaileetan eskuragarri** egon dadin eta herritarrek errazago aurki dezaten.

3

ONDORIOAK

ONDORIOAK

- 1.- Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu beharreko partaidetzari buruzko Eztabaida Foroa, 2023ko urtarrilaren 28an egindakoa, aukera bikaina izan zen Bizkaiko herritarrengandik **23 gomendio** jasotzeko, Aldundiak bultzatzen duen herritarren partaidetzak haien behar eta itxaropei hobeto erantzun diezaien.
- 2.- Aldundiak 23 gomendioak xehetasunez aztertu ostean, honako balorazioa hau egin da:
 - ☐ Bidegarritzat jotzen da **22 gomendio osorik edo partzialki hartzea** eta BFAk konpromiso zehatzak hartu ditu gomendio horiek ezartzeko.
 - ☐ Gomendio baten bidegarritasuna txikitzat jotzen da beste foru-zerbitzu batean izan litzakeen ondorio kaltegarriak direla-eta.
- 3.- BFAk bere gain hartutako **22 gomendioen gauzatzeari buruzko txosten bat egin eta jendaurrean zabalduko du 2024ko ekainean**. Txosten horrek aukera eman beharko du gomendioak zein neurritan ezarri diren jakiteko.



Foroak **23**
gomendio
eman ditu

Analisiaren
osteko emaitza



21 gomendio, Aldundiak konpromisotzat hartuta

Gomendio **1**, Aldundiak konpromiso partzialtzat hartuta

Aldundiak ez du gomendio **1** konpromisotzat hartu.

JASOTAKO GOMENDIOAK HARTZEARI BURUZ HARTUTAKO KONPROMISOAREN IKUSPEGI OROKORRA

OSOTASUNEAN HARTU BEHARRREKO gomendioak

- 1.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu lurraldeko biztanleriaren profilak kontuan hartzea gaitzen dituen partaidetza-kanaleetan, hala nola adina, ikasketa-maila, bizilekua...
- 2.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu parte hartzeko kanal hauek izatea: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, posta bidezkoa eta telematikoa (web-orriak, bideo-hitzaldiak, txatak, sareak, e-mailak eta abar.
- 3.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu hala eskatzen duten pertsonei, gaur egun bide elektronikoz eskaintzen den informazioaz gain, eskuliburu, gida, liburuxka fisikoak... ematea, herritarrek nola parte hartu jakin dezaten.
- 5.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarrei partaidetza- eta ezagutza-kanalak bermatzea parte hartzeko prozesuaren etapa guztietan.
- 7.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundia eta gainerako erakundeak kalera, " herriz herri", ateratzea, partaidetza-aukerak azaltzeko (adibidez, stand-en, topaketen, foru-langileen eta abarren bidez). Zehazki, Foru Aldundiko langileek partaidetzaren sustapenean zeregin garrantzitsua izan dezatela.
- 8.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren parte-hartzea sustatzea, parte hartzeko karpen, azoken eta adin guztientzako jarduera erakargarriak dituzten tokiko jaien bidez.
- 9.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu kanal anitzeko bitartekoak erabiltzea herritarren parte-hartzea sustatzeko, eta komunikazio-kanpaina espezifikoak ezagutaraztea telebista, postontzi, prentsa idatzi, sare sozial, webgune, tokiko aldizkari eta abarren bidez.
- 10.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren partaidetza eskolatik sustatzea, hitzaldien eta ate irekitako jardunaldien bitartez. Parte hartzen irakastea.
- 11.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetza-proiektu honek jarraipena izan dezala eta haren garapenean sakondu dadila, eta, halaber, bertan Aldundiko sail guztiak inplika daitezela.
- 12.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu beharrezko zabalpen-kanpainak egitea, herritarrei aldez aurretik jakinarazita, eta beste kanpaina arrakastatsu batzuetan (adibidez: Errenta) erabilitako bitarteen bidez ikusaraziz.
- 13.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu emandako informazioa irakurketa errazaren formatuan azaltzea, argia eta zehatza baita, eta horrela herritar guztiek ulertzeko modukoa izan dadin.
- 14.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazio gehiago ematea eztabaida foroen deialdietan (bibliografia, foroaren egitura galderekin), gonbidatuek, aldez aurretik eta borondatez, landu beharreko gaiari buruzko informazioa jaso dezaten.

15.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu aukeratutako gaiaren arrazoiak (errealitatea eta problematika) aldez aurretik eta aurrerapen nahikoarekin (15 egun lehenago gutxi gorabehera) ematea, konponbidea erraztuko duten neurri egokiak ezartzeko egin beharreko urratsak eta egungo egoera zehaztuz.

16.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, interes handia eta parte-hartze handiagoa lortzeko, parte-hartzaileei informazioaren aldizkako jarraipena bermatzea, gaiak zer bilakaera izan duen jakiteko, proposamenen hasierako ekarpenetik aukeratutako ondorioetaraino.

17.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetzarako deialdian zehatz-mehatz zehaztea parte-hartze horrek norberaren onerako eta gainerako herritarrentzat izan ditzakeen onurak.

18.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu nazioarteko beste esperientzia global batzuk biltzea honakoei buruz: parte hartu ahal izateko, gaiei lotuta eman behar den informazio-mota, eta, parte hartzeko interesa pizteko, prozesuaren gainean eman beharreko informazioa.

19.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak prozesuaren jarraipena egiteko konpromisoa har dezala. Horretarako, Aldundiak txosten bat argitaratu beharko du, dagokion formatuan, egindako ekarpenak behar bezala kudeatzen ari direla eta emaitza egokiak lortzen ari direla erakusteko. Emaitzak ezagutzeko eskubidea bermatuko da Aldundiaren webgunean, sare sozialetan, komunikabideetan, eta aurrez aurre Aldundiaren bulegoetan, udaletan, eta abarretan.

20.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, prozesuaren emaitzak zabaltzean, hizkera erraza (ez-teknikoa) erabiltzea egiten diren euskarri guztietan, eta grafikoekin eta irudiekin batera aurkeztea, herritarrek erraz uler ditzaten.

21.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak erantzun diezaiola herritar bakoitzak egindako ekarpenari/proposamenari, hau da, proposamen bakoitzari erantzun diezaiola.

22.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak, ekarpenei buruzko txostena argitaratzeaz gain, publizitate aktiboaren printzipioari jarraitzea, hau da, bizkaitar gehiagorengana iristeko, Aldundiak zabalpen-ekintzak egitea, prozesuaren emaitzak parte-hartzaileei eta parte-hartzaile izan ez direnei jakinarazteko.

23.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, herritarrek emaitzak errazago aurki ditzaten, Aldundiaren webgunearen hasieran partaidetza-atalerako zuzeneko sarbidea ipintzea, herritarrek errazago ikus eta aurki ditzaten (webgunerako zuzeneko sarbidea).

PARTZIALKI HARTZEKO gomendioak

4.- BFAren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazioa euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetara egokitzea.

Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusia

<https://www.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza>

